Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mertxe Irureta Mujika

Zumaia, Gipuzkoa (1947)



Aurkibidea

Biografia



Guraso zumaiarren alaba, Erribera kale ezagunean bizi izan ziren (orduan Portu kalea deitzen zen). Ama Juanita ileapaintzailea eta aita Angel 'barberua', kale berean zeukan bakoitzak bere lantokia, elkarren ondoan, eta ezinbestean maitemindu, ezkondu eta negozioak bateratu zituzten. Bi alaba eta semea izan zituzten. Mojen eskolara joan zen Mertxe 14 urtera arte, ondoren joskintzan ibili zen lanean. Mari Pilar Manterolarekin batera, 'Beti Gazte' dantza taldearen sortzaileetako bat izan zen. Beste zaletasun bat ere bazuen: mendia. Ahizparekin eta lagunekin mendira joaten hasi eta horrela ezagutu zuen senarra bihurtuko zen Joxeba Zubiaurre zarauztarra. Elkarrekin Indamendi mendizale elkartearen sortzaileak izan ziren, 1973an. Joxebaren argazkilaritzarako zaletasunak bultzatuta, urte askoan herrian ezaguna izan zen 'Foto Mertxe' argazki denda ireki zuten.

Zintak

ZUM-117

- **Proiektua**: Zumaiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odria, Haizea
- **Data**: 2022-02-03
- **Iraupena**: 35 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Odria, Haizea

ZUM-118

- **Proiektua**: Zumaiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odria, Haizea
- **Data**: 2022-02-03
- **Iraupena**: 61 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. "Juanita pelukera" eta "Angel barberua"

- **Erref**: ZUM-117/002
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:01:15. **Bukatu**: 00:02:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ama emakumezkoen ile-apaintzailea zen eta aita bizargina. Lokalak elkarren ondoan zeuzkaten, etxebizitzaren azpian, gaur egun Inpernupe dagoen inguruan. "Juanita pelukera" eta "Angel barberua" bezala ezagutzen zituzten. 2 ahizpa eta anaia ziren familian.

2. Garai bateko Erribera kalea

- **Erref**: ZUM-117/003
- **Iraupena**: 0:04:58. **Hasi**: 00:02:40. **Bukatu**: 00:07:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Txikitan beti kalean jolasean ibiltzen ziren. Aitaren lokal zaharrean Telefonicaren zentrala ipini zuten eta hor argia egoten zenez, hortxe jolasten zuten. Erribera kaleko eraikinak eta komertzioak aipatzen ditu banan-banan: Alondiga edo Oxford (gero eskola profesionala bihurtu zen), Foto Gar, Txikito Artadi (gaur egun Inpernupe), aitaren bizartegia, telefono zentralita. Beste aldean, "Patxineko etxea" (gaur egun Pulpo elkartea), Estalapea, Justa taberna (orduan El Ciervo), Galdona burdindegia, ikatz almazenak, luistarren eraikina, Cantábrico, Etxabe IV, okindegia.

3. Cantábrico tabernan izotza egiten zen

- **Erref**: ZUM-117/004
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:07:38. **Bukatu**: 00:09:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Cantábrico tabernak moila aldera patioa zeukan eta bertan askariak ematen omen zituzten. Izotza egiteko lokala ere bazeukan eta herritarrak izotz bila hara joaten ziren, orduan etxeetan izozkailurik ez baitzegoen.

4. Maitena zinema eta Hotel Zumaia

- **Erref**: ZUM-117/005
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:09:05. **Bukatu**: 00:11:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:
Gaur egun Aita Mari zinema dagoen lekuan Maitena zinema zegoen. Ez zeukan palkorik, behealdeko butakak eta galeria ("gallinero") bakarrik. “Acción Católica de Padres de Familia” elkarteak zabaldu zuen zinema. Kale amaieran Zubeltzuneko etxeak zeuden eta izkinan Hotel Zumaia eta aurrezki kutxa.

5. Maria eta Jose mojen eskola

- **Erref**: ZUM-117/006
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:11:14. **Bukatu**: 00:15:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Maria eta Jose mojen eskolara joan zen Mertxe. Gaur egun Kutxa dagoen lekuan zegoen. Patioa Erribera kale aldera zeukan. 14 urterekin laga zuen eskola, josten hasteko. Eskolako oroitzapen onak dauzka. Hala ere, euskaraz egiten bazuten zaplatekoa jasotzen zuten. Liburu guztiak gazteleraz zeuden. Ostegunetan gimnasia egiten zuten, praka urdinak eta blusa zuriarekin. Irakaslea falangista zen. Etxean eta kalean euskaraz egiten zuten.

6. Eskola erlijioari erabat lotuta

- **Erref**: ZUM-117/007
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:15:08. **Bukatu**: 00:18:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:
Eskolako errutina nolakoa zen: arrosarioa, meza, jostera... Larunbat goizetan ere joaten ziren eskolara eta ostegun arratsaldea jai izaten zuten. Gerora hori aldatu zuten. Etxepean jolasten zuten. Eskolatik prozesioak egiten zituzten eta Aste Santuan mezetara ere joaten ziren. Mantelina zuria eramaten zuten. Corpus Christi eguna.

7. Gaztetan mendira

- **Erref**: ZUM-117/009
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:19:36. **Bukatu**: 00:20:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Gaztetan mendiko irteerak egiten zituzten. Zarauzko Pagoeta Mendizale Elkartekoekin elkartzen ziren askotan. Horrela ezagutu zuen senarra. Ahizpa Arritxu eta beste bi lagunekin joaten zen gehienetan.

8. 'Beti Gazte' dantza taldearen sorrera

- **Erref**: ZUM-117/010
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:20:56. **Bukatu**: 00:23:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
18 urte ingururekin, 'Beti Gazte' dantza taldea sortu zuten. Mertxe eta Maria Pilar Beobidek ikasi zuten aurrena, eta ondoren parrokiaren lokal batean besteei erakusten zieten. Geroago Zarauzko 'Ondartza' dantza taldetik etortzen ziren erakustera. Materiala ere Zarauztik ekartzen zuten: ezpatak, otarrak, uztaiak...

9. San Telmo egunean 'Beti Gazte' dantza taldearen debuta

- **Erref**: ZUM-117/011
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:23:00. **Bukatu**: 00:25:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
San Telmo egun batez dantzatu zuten lehen aldiz, Estalapean, eskuz

egindako ikurrina batekin. 1966. urtea zen. Dirua lortzeko, gabon egunean jaiotzarekin kantuan atera ziren. Han lortutako diruarekin jostundegian arropak egin zituzten. San Telmo egunean estreinatu zituzten.

10. Dantza taldearen entseguetarako lokala

- **Erref**: ZUM-117/012
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:25:26. **Bukatu**: 00:27:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
'Beti Gazte' dantza taldearen hasieran, Zarauzko Ondartza dantza taldekoak etortzen ziren irakastera. Parrokiaren lokal batean entseatzen zuten, hilerriaren goialdean. Eskola txikia egon zen gero hor, dotrina ere ematen zen. Arropak lokal horretan gordetzen zituzten.

11. Dantza taldearen emanaldi nagusiak

- **Erref**: ZUM-117/014
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:28:48. **Bukatu**: 00:29:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
'Beti Gazte' dantza taldearen emanaldi nagusiak: San Telmoetan, Oikian, Arroan, Beheko Plazan, Julio Beobideren omenaldia...

12. Igandero mendira

- **Erref**: ZUM-117/016
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:31:26. **Bukatu**: 00:33:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Gaztetan mendira joaten gozatzen zuten gehien. Ahizpa Arritxurekin eta beste lagun batzuekin joaten zen. Zarauzko Pagoeta elkartearekin batera joaten ziren.

13. Umeekin bizitako komeriak

- **Erref**: ZUM-118/004
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:05:45. **Bukatu**: 00:07:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Ibilaldi neurtuetan ume mordoa biltzen zen. Eguraldi oso txarra egin zuen batean autobusa bidali zuten umeen bila. Bazkide egiteko txartelak egin behar ziren eta ume guztiei banan-banan argazkiak ateratzen ibili ziren Askizun (Getaria).

14. 'Foto Mertxe' argazki denda, Indamendi elkartearen "bulego"

- **Erref**: ZUM-118/008
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:10:49. **Bukatu**: 00:11:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
'Foto Mertxe' argazki denda Indamendi elkartearen "bulego" bihurtu zen: bazkide-txartelak egiteko, ibilaldietan izena emateko...

15. Gorbean galduta

- **Erref**: ZUM-118/009
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:11:32. **Bukatu**: 00:14:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:
Gorbean galduta ibili ziren behin. 5 autobus joan ziren eta denek sakabanatuta bukatu zuten, zegoen laino itxiarengatik.

16. Indamendi eguna maiatzean

- **Erref**: ZUM-118/016
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:20:35. **Bukatu**: 00:24:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:
Maiatzeko 3. igandean Indamendi eguna ospatzen da. Umeentzat material mordoa zozketatzen zuten. Garai batean bezperan joaten ziren salda

prestatzera. Beharrezko gauzak bizkarrean igotzen zituzten. Dantzariak, trikitilariak eta txistulariak egoten ziren.

17. Beste mendi elkarteekin harreman ona

- **Erref**: ZUM-118/017
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:24:40. **Bukatu**: 00:26:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:
Inguruko mendi elkarteekin harreman ona zuten. Egun berezietan autobus asko elkartzen ziren eta denek elkar ezagutzen zuten.

18. Lagunen arteko bromak mendian

- **Erref**: ZUM-118/020
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:29:07. **Bukatu**: 00:31:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:
Mertxeren lehengusuari egindako broma. Ondo pasatzen zuten mendian.

19. Ikurrina debekatuta

- **Erref**: ZUM-118/021
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:31:36. **Bukatu**: 00:33:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Mendiak eman diena: askatasuna, bakea, abertzaletasuna... Urbiako egunean ikurrina ikusi zutenean sentitutako emozioa, debekatuta zegoen garaian. Zumaian ere parrokian agertu zen ikurrina eta argazki hori salgai egon zen 'Foto Mertxe'-n.

20. Joxeba eta Mertxe Urbian ezkondu ziren

- **Erref**: ZUM-118/024
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:38:06. **Bukatu**: 00:40:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Ezkontza berezia izan zuten. Urbian ezkondu ziren. Apaiza kartzelatik atera berria zen eta gerora ezkondu egin zen. Erlijioaren indarra. Zinera joan ahal izateko mezetan izan zirela esan behar zuten.

21. 'Foto Mertxe', denda bat baino gehiago

- **Erref**: ZUM-118/031
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:50:43. **Bukatu**: 00:53:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
'Foto Mertxe' dendatik zumaiar gehienak pasatuko zirela dio Joxebak. Denda bat baino gehiago zen: herri-mugimenduan sartuta zeuden.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-19

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com